

Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak
2023ko laugarren hiruhilekoa

Azken 12 hilabeteetan, landunen kopuruaren igoerarik handiena, termino erlatiboetan, 'Erribera Garaia' eremuan erregistratu da (% 2,7)

Langabeen kopuruaren jaitsierarik handiena, termino absolutuetan, 'Iruña' eremuan gertatu da (aurreko urteko aldi berean baino 1.200 pertsona gutxiago), eta termino erlatiboetan, berriz, 'Pirinioaldea' eremuan (% 14,0ko jaitsiera)

2024ko otsailaren 16a

Jarduera-tasarik handiena 'Iruña' eremuan erregistratu da (% 62,3), eta 0,06 portzentaje-puntuko jaitsiera gertatu da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta

Langabezia-tasarik handiena 'Tuteralea' eremuan erregistratu da (% 11), eta aurreko urtekoa baino lau portzentaje-puntu txikiagoa izan da

LANA ETA JARDUERA-TASA

Lana. Nafarroan, 1.200 landun gutxiago daude 2023ko laugarren hiruhilekoan (% 0,4 gutxiago), eta 297.800 dira guztira. Azken hamabi hilabeteetan, berriz, 4.800 landun gehiago daude, eta, beraz, % 1,6ko igoera izan da.

Eremuaren araberako lana, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Lanak eremu guztietan egin du behera aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 'Iruña' eremuan izan ezik, bertan % 0,2ko igoera izan baitu (200 gehiago). Jaitsierarik handienak 'Tuteralea' eremuan (-% 2,0; 800 gutxiago) eta 'Nafarroako Erdialdeko Ekialdea' eremuan (-% 1,3; 200 gutxiago) gertatu dira.

Eremuaren araberako lana, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Termino erlatiboetan, landunen kopuruaren igoerarik handienak izan dituzten eremuak honako hauek



izan dira: 'Erribera Garaia' (% 2,7; 700 gehiago), 'Iruña' (% 1,9; 3.100 gehiago) eta 'Tuteralea' (% 1,4; 600 gehiago).

1. TAULA

Landunak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera
2023ko laugarren hiruhilekoa

	Oraingo hiruhilekoa	Aldakuntza, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta		Aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta	
		Aldea	Ehunekoa	Aldea	Ehunekoa
<i>Ipar Mendebaldea</i>	27,2	-0,1	-0,5	0,3	1,1
<i>Pirinioaldea</i>	7,1	0,0	-0,3	0,1	1,3
<i>Iruña</i>	164,6	0,2	0,2	3,1	1,9
<i>Estellerria</i>	17,3	-0,2	-1,0	-0,1	-0,5
<i>Nafarroako Erdialdeko Ekialdea</i>	15,3	-0,2	-1,3	0,1	0,6
<i>Erribera Garaia</i>	27,3	-0,1	-0,4	0,7	2,7
<i>Tuteralea</i>	39,0	-0,8	-2,0	0,6	1,4
Nafarroa	297,8	-1,2	-0,4	4,8	1,6

Unitateak: zifrak milaka pertsonatan

Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak

Sexuaren araberako lana, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Gizon landunen kopuruaren igoyerarik handiena 'Nafarroako Erdialdeko Ekialdea' eremuan gertatu da (% 1,0; 100 gehiago), eta jaitsierarik handiena, berriz, 'Tuteralea' eremuan (-% 1,1; 200 gutxiago). Emakumeen kasuan, berriz, jaitsierak izan dira eremu guztietan, eta honako hauek nabarmendu dira: 'Nafarroako Erdialdeko Ekialdea' (-% 4,4; 300 gutxiago), 'Estellerria' (-% 3,2; 200 gutxiago) eta 'Tuteralea' (-% 3,1; 600 gutxiago).

Sexuaren araberako lana, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Gizonen kasuan, okupazio-tasaren igoyerarik handiena 'Nafarroako Erdialdeko Ekialdea' eremuan erregistratu da (% 4,6; 400 gehiago), eta jaitsierarik handiena 'Estellerria' eremuan (-% 1,1; 100 gutxiago). Emakumeen kasuan, berriz, igoyerarik handienak 'Ipar Mendebaldea' eremuan (% 3,0; 400 gehiago) eta 'Pirinioaldea' eremuan (% 2,8; 100 gehiago) erregistratu dira, eta jaitsiera bakarra 'Nafarroako Erdialdeko Ekialdea' eremuan gertatu da (-% 4,6; 300 gutxiago).

2. TAULA

Landunak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera. Gizonak.
2023ko laugarren hiruhilekoa

	Oraingo hiruhilekoa	Aldakuntza, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta		Aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta	
		Aldea	Ehunekoa	Aldea	Ehunekoa
<i>Ipar Mendebaldea</i>	15,3	-0,1	-0,6	-0,1	-0,4
<i>Pirinioaldea</i>	4,1	0,0	-0,2	0,0	0,3
<i>Iruña</i>	83,4	0,7	0,9	1,5	1,8
<i>Estellerria</i>	10,1	0,0	0,7	-0,1	-1,1
<i>Nafarroako Erdialdeko Ekialdea</i>	9,0	0,1	1,0	0,4	4,6
<i>Erribera Garaia</i>	15,3	0,0	-0,1	0,5	3,2
<i>Tuteralea</i>	21,6	-0,2	-1,1	0,1	0,6
Nafarroa	158,8	0,5	0,3	2,3	1,5

Unitateak: zifrak milaka pertsonatan

Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

3. TAULA

Landunak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera. Emakumeak.
2023ko laugarren hiruhilekoa

	Oraingo hiruhilekoa	Aldakuntza, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta		Aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta	
		Aldea	Ehunekoa	Aldea	Ehunekoa
<i>Ipar Mendebaldea</i>	11,9	0,0	-0,4	0,4	3,0
<i>Pirinioaldea</i>	2,9	0,0	-0,4	0,1	2,8
<i>Iruña</i>	81,2	-0,5	-0,6	1,7	2,1
<i>Estellerría</i>	7,3	-0,2	-3,2	0,0	0,3
<i>Nafarroako Erdialdeko Ekialdea</i>	6,3	-0,3	-4,4	-0,3	-4,6
<i>Erribera Garaia</i>	12,0	-0,1	-0,7	0,2	2,0
<i>Tuteraldea</i>	17,4	-0,6	-3,1	0,4	2,4
Nafarroa	139,0	-1,7	-1,2	2,5	1,8

Unitateak: zifrak milaka pertsonatan

Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak

Jarduera-tasa. Jarduera-tasak 0,4 puntu egin du behera aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 0,3 puntu iazko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 59,1ekoa izan da. Tasarik handiena 'Iruña' eremukoa izan da, eta % 62,3ra iritsi da. Beraz, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 2 hamarren txikiagoa izan da. Haren atzetik, 'Ipar Mendebaldea' eta 'Tuteraldea' kokatu dira, % 56,6ko eta % 56,3ko tasarekin, hurrenez hurren.

Jarduera-tasa, sexuaren arabera. Gizonen zein emakumeen kasuan, jarduera-tasarik handiena izan duen eremua 'Iruña' izan da; gizonek % 65,3ko tasa izan dute, eta emakumeek, berriz, % 59,7koa. Gizonen tasarik txikiena 'Pirinioaldea' eremuak izan du (% 58,4), eta emakumeen tasarik txikiena, berriz, 'Estellerría' eremuak (% 46,8).

4. TAULA

Jarduera-tasak, eremuaren eta sexuaren arabera, Nafarroa 2000 zonifikazioari jarraikiz
2023ko laugarren hiruhilekoa

	Jarduera-tasa (%)		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
<i>Ipar Mendebaldea</i>	56,6	60,2	52,7
<i>Pirinioaldea</i>	54,2	58,4	49,4
<i>Iruña</i>	62,3	65,3	59,7
<i>Estellerría</i>	53,4	59,8	46,8
<i>Nafarroako Erdialdeko Ekialdea</i>	55,0	62,7	47,2
<i>Erribera Garaia</i>	55,2	60,5	49,8
<i>Tuteraldea</i>	56,3	61,8	50,8
Nafarroa	59,1	63,1	55,2

Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak



DESEMPLEGUA ETA LANGABEZIA-TASA

Langabezia. Langabeen kopurua aurreko hiruhilekoan erregistratutakoaren antzekoa izan da, eta 30.600era iritsi da. Azken 12 hilabeteetan, 2.300 langabe gutxiago daude, hau da, % 6,9 gutxiago.

Desenplegua, eremuaren arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Langabeen kopuruan igoerarik handienak izan dituzten eremuak 'Tuteralea' (% 7,8; 300 gehiago) eta 'Estellerria' (% 5,7; 100 gehiago) izan dira, eta jaitsierarik handiena 'Nafarroako Erdialdeko Ekialdea' eremuan gertatu da (-% 4,7; 100 gutxiago).

Desenplegua, eremuaren arabera, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Termino erlatiboetan, langabeen kopuruan jaitsierarik handienak izan dituzten eremuak 'Pirinioaldea' (-% 14,0; 100 gutxiago) eta 'Erribera Garaia' (-% 12,4; 400 gutxiago) izan dira, eta ez da igoerarik izan ezein eremutan.

5. TAULA

Langabeak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera
2023ko laugarren hiruhilekoa

	Oraingo hiruhilekoa	Aldakuntza, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta		Aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta	
		Aldea	Ehunekoak	Aldea	Ehunekoak
Ipar Mendebaldea	2,3	0,0	-2,2	-0,3	-11,3
Pirinioaldea	0,6	0,0	-3,7	-0,1	-14,0
Iruña	17,0	-0,2	-1,2	-1,2	-6,7
Estellerria	1,8	0,1	5,7	0,0	-0,1
Nafarroako Erdialdeko Ekialdea	1,3	-0,1	-4,7	-0,1	-8,6
Erribera Garaia	2,8	-0,1	-3,4	-0,4	-12,4
Tuteralea	4,8	0,3	7,8	-0,2	-2,8
Nafarroa	30,6	0,0	0,0	-2,3	-6,9

Unitateak: zifrak milaka pertsonatan

Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak

Desenplegua, sexuaren arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Gizon langabeen kopuruak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta izan duen jaitsiera (2.300 gutxiago) emakume langabeen kopuruaren igoerarekin konpentsatu da (2.300 gehiago). Gizonen kasuan, langabeziaren jaitsiera erlatiborik handiena izan duten eremuak 'Iruña' (-% 19,1; 1.700 gutxiago) eta 'Erribera Garaia' (-% 15,6; 200 gutxiago) izan dira. Emakumeen kasuan, berriz, langabeziak 'Estellerria' eremuan (% 19,9; 200 gehiago) eta 'Iruña' eremuan (% 18,3; 1.500 gehiago) izan duen igoera nabarmendu da.

Desenplegua, sexuaren arabera, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Gizonen kasuan, langabeziak behera egin du eremu guztietan, eta jaitsiera % 23,4ra (400 gutxiago) eta % 23,1era (2.200 gutxiago) iritsi da 'Erribera Garaia' eta 'Iruña' eremuetan, hurrenez hurren. Emakumeen kasuan, berriz, langabeziak gora egin du 'Iruña' eremuan (% 10,9; 900 gehiago) eta 'Tuteralea' eremuan (% 9,1; 200 gehiago).



6. TAULA

Langabeak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera. Gizonak.
2023ko laugarren hiruhilekoa

	Oraingo hiruhilekoa	Aldakuntza, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta		Aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta	
		Aldea	Ehunekoak	Aldea	Ehunekoak
<i>Ipar Mendebaldea</i>	1,0	-0,1	-11,0	-0,2	-15,5
<i>Pirinioaldea</i>	0,3	-0,1	-13,2	-0,1	-19,9
<i>Iruña</i>	7,2	-1,7	-19,1	-2,2	-23,1
<i>Estellerria</i>	0,7	-0,1	-9,7	0,0	-4,0
<i>Nafarroako Erdialdeko Ekialdea</i>	0,6	-0,1	-11,5	-0,1	-19,1
<i>Erribera Garaia</i>	1,2	-0,2	-15,6	-0,4	-23,4
<i>Tuteralea</i>	2,4	0,0	-0,7	-0,3	-12,8
Nafarroa	13,4	-2,3	-14,65	-3,3	-19,8

Unitateak: zifrak milaka pertsonatan

Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak

7. TAULA

Langabeak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera. Emakumeak.
2023ko laugarren hiruhilekoa

	Oraingo hiruhilekoa	Aldakuntza, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta		Aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta	
		Aldea	Ehunekoak	Aldea	Ehunekoak
<i>Ipar Mendebaldea</i>	1,3	0,1	6,0	-0,1	-7,8
<i>Pirinioaldea</i>	0,3	0,0	6,5	0,0	-8,2
<i>Iruña</i>	9,7	1,5	18,3	0,9	10,9
<i>Estellerria</i>	1,1	0,2	19,9	0,0	2,8
<i>Nafarroako Erdialdeko Ekialdea</i>	0,8	0,0	1,2	0,0	1,5
<i>Erribera Garaia</i>	1,5	0,1	9,2	0,0	-1,0
<i>Tuteralea</i>	2,5	0,4	17,2	0,2	9,1
Nafarroa	17,2	2,3	15,4	1,0	6,2

Unitateak: zifrak milaka pertsonatan

Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak

Langabezia-tasa. Nafarroako langabezia-tasa % 9,3ra iritsi da; 0,03 portzentaje-puntuko igoera izan du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 0,8 puntuko jaitsiera azken 12 hilabeteetan. Langabezia-tasarik handienak izan dituzten eremuak honako hauek dira: 'Tuteralea' (% 11,0) eta 'Estellerria' (% 9,4). Tasarik txikiena, berriz, 'Ipar Mendebaldea' eta 'Pirinioaldea' eremuetan gertatu da (% 7,9).

Langabezia-tasa, sexuaren arabera. Gizonen langabezia-tasarik handienak izan dituzten eremuak 'Tuteralea' eta 'Iruña' izan dira (% 9,8 eta % 8,0, hurrenez hurren), eta tasarik txikiena, berriz, 'Nafarroako Erdialdeko Ekialdea' eremukoak izan da (% 6,0). Emakumeen kasuan, tasarik handiena 'Estellerria' eremukoak izan da (% 12,7), eta txikiena, berriz, 'Ipar Mendebaldea' eta 'Iruña' eremuetakoa (% 9,9).



8. TAULA


Langabezia-tasak, eremuaren eta sexuaren arabera, Nafarroa 2000 zonifikazioari jarraikiz 2023ko laugarren hiruhilekoa

	Langabezia-tasa (%)		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
<i>Ipar Mendebaldea</i>	7,9	6,2	9,9
<i>Pirinioaldea</i>	7,9	6,5	9,9
<i>Iruña</i>	9,3	8,0	10,7
<i>Estellerria</i>	9,4	6,8	12,7
<i>Nafarroako Erdialdeko Ekialdea</i>	8,0	6,0	10,7
<i>Erribera Garaia</i>	9,2	7,4	11,4
<i>Tuteraldea</i>	11,0	9,8	12,5
Nafarroa	9,3	7,8	11,0

Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak

1. GRAFIKOA

Langabezia-tasak, eremuaren arabera, Nafarroa 2000 zonifikazioari jarraikiz 2023ko laugarren hiruhilekoa



Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

JARDUERA-TASAREN ETA LANGABEZIA-TASAREN URTEKO BILAKAERA


Jarduera-tasa. Azken bost urteetan jarduera-tasarik handienak izan dituen eremua 'Iruña' izan da, eta tasarik txikienak izan dituena, berriz, 'Estellerría'.

2. GRAFIKOA

Jarduera-tasen bilakaera, eremuaren arabera, Nafarroa 2000 zonifikazioari jarraikiz 2019-2023 aldia

Balioak urteko batezbestekoak dira.

(na)stat




Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak

Langabezia-tasa. Azken bost urteetan langabezia-tasarik handienak izan dituzten eremuak 'Iruña' eta 'Erribera Garaia' izan dira. 2022. urtearekin alderatuta, langabezia-tasak eremu guztietan egin du gora.

3. GRAFIKOA

Langabezia-tasen bilakaera, eremuaren arabera, Nafarroa 2000 zonifikazioari jarraikiz 2019-2023 aldia

(na)stat



Balioak urteko batezbestekoak dira.

Iturria: Nastat. Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00



OHAR METODOLOGIKOA

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren ustiapenak aukera ematen du hiru hilean behin Nafarroan oinarrizko aldagaiak estimatu eta argitaratzeko eta lan-merkatuaren analisi zehatza egiteko. Informazio mota horren eskaera bat dago maila geografiko txikiagoetarako; izan ere, lurraldera egokitutako gizarte-politikari eta enplegu-programei buruzko erabakiak hartzeko aukera emango luke horrek. Estatistika honen informazioak bidea ematen du Nafarroako eremu bakoitzeko lan-merkatua ebaluatzeko.

Nastatek BAIn aldagai nagusietako **Nafarroa 2000 zonifikazioa** definitzen dituzten zazpi eremuetarako zenbatespena egiten du, administrazio-erregistroen informazio osagarria duten eremu txikietako zenbatespen-tekniken bidez, Nafarroako Estatistika Planak ezarritako jarraibideak betez. Zehazki, Nafarroako Enplegu Zerbitzutik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik eta Nafarroako Foru Ogasunetik datorren informazioa erabiltzen da. Gainera, urtero, Biztanleria Aktiboaren Udal Estatistika egiten da udalerrri-mailako adierazleekin. Estatistika hori, erabilitako erregistroak direla eta, ezin da hiru hilean behin egin.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Biztanleria Aktiboaren Estatistika. Nafarroa 2000 eremuak. 2023ko laugarren hiruhilekoa.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

